

BATASUNA PROZESUA. Ekainaren 23an amaituko da prozesua Iruñeko ekitaldiarekin

Zuzenketak aztertu eta zuzendaritza hautatuko dute ekainaren amaieran

Erakunde berriaren izena Batasuna izatea proposatzen du ponentzia nagusiak

Axun Erzibengoa | DONOSTIA

Joan den urteko maiatzean abiatu zen Batasuna prozesua Euskal Herriko ezkerrearen antolaketa berria osatzeko asmoz, eta prozesu horren azken fasearen nondik norakoak azaldu zituzten bultzatzaileek. Prozesu horren amaieran erakunde berria sortuko da, eta haren egituratan eta zuzendaritza taldean ere, Herri Batasunako kide izan diren batzuk, eta izan ez direnak ere egongo direla esan zuen Arantza Urkaregik, Batasuna prozesua zabaldua izan dela erantsiz. Prozesuaren azken fasera helduta, ekainaren 23a bitartean bi helburu nagusi dituztela adierazi zuen: Bateginez ponentziari eginiko 41 zuzenketak eztabaidatzea, eta erakundeko karguak hautatzea.

Izena eta zuzendaritza

Zuzenketen eztabaida ekainaren 8a arte luzatuko da, eta hura amaitzean argituko da erakunde berriaren izena. Proposamen nagusia Batasuna izatea da, baina zuzenketa batek Herri Batasuna izena berreskuratzea eskatzen du.

Erakunde berriko zuzendaritzari buruz, izenak proposatzeko epea ekainaren 3a arte zabalik dago. Ekainaren 18a eta 21a artean batzarretan egingo dituzte bozketak ondoko ordezkariak hautatzeko: Herri batzarretan eta Batzar Nazionalan izango diren herrietako ordezkariak, Herrialdeko Mahaiak, Mahai Nazionala, Batzar Nazionalako 50 kide eta herri eta auzoetako mahaiak. Azken hori iraila arte luza daiteke.

Ekainaren 23an Iruñean batzar orokorra egingo dute, eta bertan ezagutuko dira Mahai Nazional berriko kideak. Egungo 25etik 32 izatera igaroko dira.

Bateraezintasunak

Egunotan aztertuko dituzten zuzenketen artean politika feministari buruzko hiru aipatu zituen Urkaregik. Hasieran gaia oinarritzko txostenetik kanpo



PABLO S. QUIZA

Rufi Etxeberria, Arantza Urkaregi, Begoña Zabala eta Zigor Gojeaskoetxea, atzoko agerraldian.

ZUZENKETAK

41 proposamen aztergai

Batasuna prozesuan Bateginez ponentziak lortu zuen babesik handiena. Orain proposamen horri egin zuzenketak ari dira aztertzen. Jarraian eztabaida sortu duten puntu nagusietan Bateginez-ek dioena lehenik eta hari aurkezturiko zuzenketa nagusiak ondoren:

BORROKA MOLDEAK

BATEGINEZ. Borroka moldeak anitzak behar dutela dio, beste esparruak baztertu gabe esparru nagusiat gizartea jarritz. ETARI eta kale borrokari buruz dio: «Irakurketa eta iritzi asko egonik, ez ditugu ez ontzat ez txartzat ematen estrategia horiek». 10 zuzenketa jaso ditu.

ARALAR. Ekintza politikoaren nagusitzea proposatzen du, baita ETARI su-etena eskatzea.

TALDEA. Su-etena berreskuratzeko ahaleginak egitea proposatzen du, «halaber erakunde armatuari dagozkion eskaera zuzenak».

I- AGIRRE. Borroka armatuaz eta kale borrokaz aurreiritzirik gabeko eztabaida eskatzen du.

EUXEBIO. ETARI su-etena eskatzen dio.

EZKIO ITSASO. Estrategia armatua alboratzeak indar metaketa berria ekarri zuela dio, eta hori kontuan izan behar dela.

ARBALITZA. Borroka armatuari buruzko barne eztabaida egitea proposatzen du, kanpora begira Bateginez-en asmoa ontzat emanez.

KIDETZA HERRITARREN BATASUNEAN

BATEGINEZ. Kideen garrantzia azpimarratzen du, eta militatzeko modu anitzei ateak ireki behar zaizkiela. Kide txartela proposatzen du.

ARALAR. Militantearen figura sortzea eta haien errolda osatzea proposatzen du. Bi urtero kongresua egitea ere bai.

SONDIKA. Jendea batzen duena militantzia izanik txartelak jendeak atzera egitea ekarriko duela uste dute. Bateginez-ek ontzat eman du gogoeta, eta txartela egiteko asmoa erretiratzearen alde agertu da.

BORROKA INSTITUZIONALA

BATEGINEZ. Nafarroako Parlamentuko eta Batzar Nagusietako lanari garrantzia ematen dio; Gasteizko parlamentuaren zein Departamenduaren balioa taktikoa dela dio. Europari begira lan egitea proposatzen du, ez Espainia edo Frantziari begira.

ARALAR. Erakunde guztietan parte hartu behar dela iritzi dio, baita Gasteizko Legebiltzarrean, Espainia eta Frantziakoetan, zein Europan.

IGITAIA ETA MAILUA. Gasteiz eta Iruñeko parlamentuetan eta Departamenduaren alde aritzeak, subiranotasunaren aurkakoen kontraesanak areagotuko dituela uste dute.

TALDEA. Gasteizko legebiltzarrean parte hartze-ari ez zaiola uko egin behar dio.

utzi eta atal berezia egitea pentsatu zuten arren, azkenean sartzea erabaki dute zuzenketa horien alde agertuz.

Borroka armatuari buruzko zuzenketak dira ugariak, baina beste zenbait ere badira. Horien artean bateraezintasun-

ren inguruan aurkeztutakoa berria da. Erakunde barruko ardurak, eta instituzioetakoak banatzea du helburu errepika ez daitezen. Sexuen arteko parekidetasuna ere eskatzen dute. Zuzenketa Taldeak izenarekin aurkeztu dute. Proposa-

men hori oinarritzat harturik Bateginez-ek beste testu bat proposatzen du. Bertan jasotzen da instituzioetako bozemaileak eta erakundekoak bereizteko proposamena, edo kargu publikoetan aritzeko epea gehienez 12 urtetan finkatzea.

LABURAEAN

Bi eta 17 urte bitarteko zigorra eskatu du Entzutegi Nazionalako fiskalak sei lagunentzat

Akusatu defentsak eta fiskalak epaiketan hitzartuta, bi urte eta 17 urte eta erdi arteko zigorrak eskatu ditu Espainiako Entzutegi Nazionalako fiskalak sei lagunentzat, 1997ko urtarrila eta 1998ko martxoa artean ETAK eginiko zenbait ekintzagatik. Aitor Bores eta Iñaki Crispinentzat 17 urte eta erdi eskatu zituen; Jose Angel Etxezarretarentzat 13 urte; Jose Antonio Hernandez eta Mari Karmen Irizarrentzat bost urte eta erdi; eta Pilar Agirrentzat bi urte. Beste hiruren kontrako eskaera atzera bota zuen.

Iñigo Makazagak gaur du auzia Erresuma Batuan agiri faltsuengatik

Iñigo Makazaga gasteiztarra gaur igaroko da Folkestoneko auzitegitik, hiru garren aldiz, agiri faltsuen auzia dela kausa. Makazaga apirilaren 24an atxilotu zuten Erresuma Batuan, Eurotuneletik Frantziara igarotzera zihoala. Espainiako Entzutegi Nazionalan bi auzi ditu Iñigo Makazagak, eta fiskaltzak Guillermo Ruiz Polanco epaileari galdegina dio haren inguruko dokumentazio guztia eskatzeko Erresuma Batuko agintariei.

Maria San Gili mehatxu egiteaz akusatutako bi gazteak ekainean epaituko dituzte

Ekaineko azken astean egingo da Unai Garzia eta Ekaitz Agirre gazteen aurkako epaiketa, Espainiako Entzutegi Nazionalan. Ertzaintzak Aski Da! plataformaren kontzentrazio baten aurrean el-karreratu zirelarik atxilotu zituen biak, eta Maria San Gil Donostiako PPko zinegotziari heriotza mehatxuak egitea leporatzen diote. Fiskalak bi urte eta hamar hilabeteko kartzela zigorra eskatu du bakoitzarentzat.

Harriet Iragi ekainaren 13an epaituko dute ustez Teresa Palacios epailea mehatxatu zuelako

Harriet Iragi ustezko etakidea ekainaren 13an epaituko dute Espainiako Entzutegi Nazionalan, Teresa Palacios epailea mehatxatu izanaren akusaziopean. Valdemoron preso zegoela Iragik epaileari igorri zion gutuna da auziaren funtsa.